



# Beldurrari

Beñat Gaztelumendi Arandia

## *Doinua: Zure bular politik* Zortziko txikia

- 1 Ai, beldurra bakarrik gaude **azkenean** gelan, autobusean, kalean, **trenean** ez didazu zauririk sortzen **barrenean** parez pare begira jartzen **naizenean**.
- 2 Zer ote zaren ez da erraza **jakiten**: zakur handi bat dena nire bila **irten** nahiz sabel barrenean duzun **eragiten** zaunkak zaunka ez duzu horzkarik **egiten**.
- 3 Itzal ilun bat zara nigana **begira** auto beltz bat igoa espaloi **erdira** soka bat eztarrian tira eta **tira...** Beldurrik ez dutenak ausartak al **dira?**
- 4 Agertzen zara gauak direnean **laino**: sentiarazten nauzu txiki, ahul, **ñaño**. Nahiz parean zutitzen zaren **zeruraino** urruntzean ez zara koskatxo bat **baino**.
- 5 Orain beldurra diet hainbat **harremani** entzuten ez ditudan hamaika **esani...** Dardarka jarri arren azal eta **mami** nirekin zaramatzat baina ez **zara ni**.
- 6 Beldurra diot tunel ilun, luze **horri** egunsentiak jaiki direnean **gorri** azkar ibiltzen zara korri eta **korri**: behin joaten zara eta bi aldiz **etorri**.
- 7 Zurekin aurkitzea hain arrunta **baitzen** nahiz hasieran indarrak zitzaizkidan **ahitzen** zu sentitu arren dut aurrera **jarraitzen** zuri esker baitakit zein ausarta **naizen**.
- 8 Beti ez dut ematen pausoa **seguru** baina behin ipinita biok buruz **buru** denborak hurbileko egin **baikaitu gu** elkarrekin bizitzen ikasiko **dugu**.